

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maria Rosa Iturri Arrien

*Errigoiti,
Bizkaia
(1938-2025)*

Aurkibidea



Biografia



Errigoitiko Zabale auzoko Zabalbeazkoa baserrian jaio zen 1938ko ekainaren 14an. Gurasoak ere errigoitiarrak zituen. Ama, Klaudia Arrien Garai, Zabalbeazkoa baserriko oinordekoa, erlijioak pisu handia zeukan familia batekoa. Aita, Antonio Iturri Erezuma, Errigoitiko Uria auzoko Antzuene baserrikoa, ezkondu aurretik Ameriketara 7 urte egindakoa, soinua jotzen eta idi-probetan bere anaia Leonekin ibili zalea.

Maria Rosa oso buruargia izan zen txiki-txikitatik. Irakurzale amorratua eta oso kantari ona. Sei urte zituenerako, dotrina osoa zekien buruz. Hamahiru urterekin Gernikako moja karmeldarren barnetegira eraman zuten ikasketak egiteko, eta hantxe burutu zituen Komertzio ikasketak. Gero Bilboko bulego batean jardun zuen kontabilitate eta idazkari lanetan ezkondu arte. Bilbora ezkondu zen eta hantxe jaio ziren lau seme-alabak. Gero Mungiaira aldatu zuten bizilekua. Sarritan joaten zen bere seme-alabekin Errigoitiko bere jaiotetxeko baserrira, hainbeste maite zituen guraso eta neba-arrebenera. Bertakoak dira pasarte hauetan jasotako irudiak.

Zintak

EGT-013

- **Proiektua:** Fondo partikularrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elorriaga Iturri, Yolanda
- **Data:**
- **Iraupena:** 2 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elorriaga Iturri, Yolanda
- **Emalea:** Elorriaga Iturri, Yolanda

EGT-014

- **Proiektua:** Fondo partikularrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elorriaga Iturri, Yolanda
- **Data:**
- **Iraupena:** 1 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elorriaga Iturri, Yolanda
- **Emalea:** Elorriaga Iturri, Yolanda

Pasarteak

1. Jesusen Bihotza eta senar-emazteak

- **Erref:** EGT-013/001
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Gizona kexatu egiten da andreak Jesusen Bihotzaren irudiari (argi eta guzti ipinita daukanari), berari baino kasu gehiago egiten diolako. “Harek defendiduko dau!” esaten du ironiaz. Maria Rosak berak ere etxean Jesusen Bihotzaren irudia daukala erantzuten dio. Orduan gizonak Maria Rosari: “Ai, zu be holan, haren lez??” Eta Maria Rosak erantzun: “Zelan guruzu (gura dozu) ba, inpernuko demoniñoagaz joatie guruzu (gura dozu), ala??”. Baina gizonak kexaka jarraitzen du, bere emazteak Jesusen Bihotzaren irudiari berari baino hobeto atendidu eta dena aldrebez egiten diolako, “ea zer egingo dauan berak andreagaz “dio (Pasartean Maria Rosa Iturri Arrienen Errigoitiko euskararen aberatsa ederto baten ikusten da.“Ha dau (dago) egotekoa!” moduko esamolde eder-ederrak gure Bizkaiko euskararen altxorraren ezaugarri dira.) Bitartean andreak senarrari buruz: “ Arregleko da, gure (gura) badeu (badau)!” esaten du.</p>

Transkripzioa

- Andriek hattik kanpora bota??
- Ez, horrenbeste ez. Han dekost Jesusen Bihotzan zera be iminde dekost entradan, Jesusen Bihotzan imaginie ta harek defendidu didxen. Harek defendiduko deu!. Argidxegaz ta iminde deko entradan Jesusen Bihotzan imaginie. Harek defendiduko deu!
- Ba, hori seÑale ona da. Neuk be badekot komedorien, baia argi barik. (Esan notsan ta)
- Ai, zu be holan?? Haren lez??
- Zelan guruzu, ba?? Inpernuko demoniñoagaz guruzu ala joatie?? (Esan notsan ta)
- Ez, horrenbeste ez, baia... baia... gizonari ondo atendidu lehenengo! Ez gizona hortik en bandan joan, eta bera han... han... zerien!
- (Antza gizonari etso (ez deutso) atendiduten)
- Berak esaten ei tso (ei deutso) gauze bat, eta berari aldrebes eitten ei tsoz (ei deutsoz) gauze guztidxek, eta ia berak zer eingo deuen andriegaz.
- (Ha dau (dago) egotekoa!!) (Maria Rosak gizonari buruz)

- Eskribidu tsue (deutsue) amerikanuek? (Gero hurrengo ta...)
- Feliziteu ein tsie (deutsie), feliziteu ein tsie, nebak, nebak feliziteu tsie, baia ez, oniño...

- Ta andrie beste baten tope noan mezik urtenda ensegida ta... Zer eitten zu (dozu) hemen ta... "Hor dabitzu gizona bueltaka" esan notsan.
- "Arregleko da, gure (gura) badeu (badau)!! " Andriek.

2. Karta jokoan etorria eukitea zer den

- **Erref:** EGT-014/001
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

<p>Karta jokoan etorria eukitea (“etorridxe eukittie” Errigoitiko eran), kartak ondo etortzea da, (jokoan zehar karta onak eukitea).</p>

Transkripzioa

- Nok irabazi deu lehen?
- Lehen??
- Neuk. Lehenengoan neuk.
- Lehen, akaburengoan, tia eta ni ibili garenien, zera... tiak irabazi deu.
- Etorridxe zelan etorten dan ixeten da.
- Ezpatie badekozu, hiruko ezpatie da..
- Baia etorridxe be euki deu, e? Eta gero kartak ondo etorri.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-04-04

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com